

2005



memoria  
unesco etxea

2005

Memoria | UNESCO Etxea | Txostena | 2005

2005



unesco etxea  
txostena

2005

Lehendakariaren mezua

Zuzendariaren mezua

Nor gara

Misioa, ikuspegia eta baloreak  
Sareak eta aliantzak

Lan arloak

Nazioarteko Lankidetzak eta Giza Eskubideak  
Hezkuntza eta Gazteria  
Ingurumena  
AMARAUNA  
Dokumentazio-zentroa  
KOOPERA Zentroa: Nazio Batuak eta Nazioarteko Lankidetzak

Erakunde ekitaldiak eta aurkezpen publikoak

Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordea  
Kultur Aniztasunari buruzko adirerazpena  
Gertaera garrantzitsuak  
UNESCO Etxea UNESCO  
Miren Onaindiaren mezua  
Elkarrizketa: Marta Ruedas

Datu ekonomikoak

Web orria eta argitalpenak

Eskerrak



Erredakzioa eta grafikoak: UNESCO Etxea lantaldea  
Diseinua eta maketazioa: SRB, S.L.  
Edizioa: 2006ko ekaina  
Editatzen du: UNESCO Etxeak

UNESCO Etxea  
Urkixo Zumardia, 60 esk. nag. 48011 Bilbo  
Tlf.: 94 427 64 32 Faxa: 94 427 25 48  
info@unescoeh.org  
www.unescoeh.org



## Ruper Ormaza Lehendakaria



**2005ean ere** izugarrizko garapena izan du UNESCO Etxeak. Puntu batzuk baino ez ditut azpimarratu. Barne-mailan, zuzendari berriak sekulako lana egin du langileekin, laguntzaileekin, aliatuekin eta elkarkete zuzendaritza-kontseiluarekin. Ohorezko Bazkideen Aholkularitza Kontseilua ere eratu dugu, Estatutuetan ezarritakoari jarraiki, UNESCO Etxeko balioekin bat datozen ibilbide profesional eta pertsonala duten pertsonen osatua. Gure esker ona adierazi nahi diegu, orain arte bezala inspirazioa eta laguntza ematen jarrai dezaten. Hain zuzen ere, irailean, *Kultur Aniztasunari buruzko Adierazpena* egin genuen, haiekin batera. Hona hemen adierazpen horren paragrafo batzuk, UNESCO Etxearen ikuspegiaren ildotik:

«Euskal erakunde garen aldetik, gizarte irekia errazteko lanaz arduratzen gara; hau da, bertakoa balioetsi, babestu eta bultzatzeaz gain, helmen handiko ikuspegia sustatuko dugu, ekonomia-, gizarte-, gobernu- eta

lege-tresnak dituena. Horretarako, Europan eta munduan aliantzak eta baterako ekintzak egingo ditugu».

Egindako jardueri dagokionez, oso harro gaude 'Munduko hizkuntzei buruzko txostena' ingelesez eta euskaraz argitaratu izanaz. Gainera, hurrengo edizioan frantsesez eta gaztelaniaz ere argitaratuko da. Eusko Jaurilaritzaren babespean antolatu dugun 'Hizkuntzei eta Immigrazioari' buruzko biltzarrez ere harro gaude. Izan ere, UNESCO Etxean «Euskadiko erakunde bat garen aldetik, gizarte plurala sortzeko konpromisoa hartzen dugu, nortasun anitzekoa, euskal herritar guztiei ahalik eta askatasun handiena eman eta mugimendu intoleranteak eragin ditzakeen kultur gatazkak prebenitzeko» (aipatutako 2005eko iraileko 'kultur aniztasunari' buruzko adierazpenetik).

Gure nazioarteko misioaren eta tokian tokiko eraginaren ildotik, nabarmendu behar dut *Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko 2005eko txostena* eta *Giza Garapenari buruzko*

*2005eko txostena* euskaraz argitaratu direla. UNESCOko Boluntarioen Programa ere nabarmendu nahi dut, beste behin ere garapen-bidean dauden herrialdeetako UNESCOren bulegoetan bekadun gisa jarduteko aukera eman baitie 11 euskal gazteri. Bestalde, azpimarragarria da euskal gazteek parte hartu dutela «gazteak eta zibilizazioen, kulturen eta herrien arteko elkarrizketari» buruzko Gazteriaren IV. Mundu Foroan.

UNESCO Etxean gizarteari lagundu nahi diogu, eta memoria honen bidez gure ahaleginen eta lorpenen berri eman nahi diogu, akordioak eta babesak berritzeko, eta itun eta lankidetzara gehiago izateko.

## Mikel Mancisidor Zuzendaria



**2004ko memorian,** UNESCO etxearen erantzukizuna neure gain hartu nuenean, planei eta konpromisoei buruzko mezua izenpetu nuen, etorkizuneko mezua. Gaur, egiteke dauden erronkei buruz eta erakunde honek urtean zehar bildutako fruituei buruz idaztea dagokit. Niretzat ohorea eta atsegina da horrelako talde aditua zuzentzea. Ikus ditzagun 2005eko gertaera gogoangarri batzuk:

- Onura Publikoko Deklarazioa eman digute. Kalitaterako eta gardentasunerako konpromisoan aurrerapauso bat, ez nahikoa baina bai beharrezkoa.

- Gure Estatutuetan aintzat hartzen da Ohorezko Bazkideen Aholkularitza Kontseilua. Kideak izendatuta daude eta lehen bilera egin da. Kideen kategoria esanguratsua da. Eskertzekoa da pertsonaia garrantzitsu horien laguntza. Kontseiluak onartutako idatziak ibilbide handia izan du UNESCOn, eta dagoeneko gure ideien zati da.

- Partaidetza-prozesu batean, taldearen eta zuzendaritza batzordearen artean, Hiru urterako Plan Estrategikoa (2006-2008) osatu dugu, garenaren eta

lortu nahi dugunaren ildo nagusiak argi eta garbi edukitzeko, epe ertainean berariazko helburuak izateko. Gainera, hori neurtzeko tresnak hobetzeraz behartzen gaitu planak.

Dena den, aitortu behar dut ez dugula lortu bazkide-kopurua handitzeko helburua.

Itxaropen handiko unea da gure herriarentzat. UNESCO Etxeak bere ekarpena egin nahi du bakea lortzeko eta komunitate hobea eraikitzeko. Helburu horrekin, Gernikari buruz Adiskidetzaren eta Bakearen alde egiten diren lanak babesten jarraitzen dugu. Giza Eskubideen eta Bakearen Institutuaren proiektuaren idazkaritza teknikoaz arduratzeko aukeratu gaitu Donostiako Udalak, eta egoitza Aiete Jauregian izango du, seguruena. Gainera, Eusko Jaurilaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin ere lanean ari gara, giza eskubideen oinarriko erronka batzuei aurre egiteko (bertakoak zein nazioartekoak).

UNESCOrekin eta NBErekin batera egiten dugun lanean, nazioarteko

erakundeak berritzea garrantzitsua dela uste dugu, eta horretan dihardugu, desengainuen eta etsipenen gainetik. Baina, batik bat, Milurtekoko Helburuak lortzeko konpromisoari eusten diogu. Eveline Herfkens-ek -Helburuen koordinatzailea munduan eta dagoeneko UNESCO Etxearen lagun ona- adierazi zuen moduan, munduko pobrezia-rekin amaitzeko gai den lehen belaunaldia gara eta ez dugu aukera alferrik galdu nahi.

2006an, adierazitako ildoak finkatu eta hobetzen jarraitu nahi dugu. Gure agintaldian eta ahal dugun neurrian, Euskal Herriak bizi duen bake-prozesuan parte hartuko dugu. Zure laguntzarekin gure gizarte-oinarria handitzen saiatuko gara. Ate berriak zabaltzeko ahalegina egingo dugu Europan. Azkenik, UNESCO Etxeak hobeto landu beharko ditu jarrerak, iritziak eta artikuluak, gehiago ikertu beharko du, eta irizpide zurrungoak, zorrotzagoak eta berritzaileagoak eman beharko dizkio gizarteari, esku artean ditugun gaietan.




# Nor gara



erabakitzen ditu eta haiek betetzen direla zaintzen du.

Gure estatutueta aintzat hartzen da maila nagusiko aholku-organo bat eratzea, Ohorezko Bazkideen Aholku Batzardea, hain zuzen. Irailaren 21ean eratu zen eta kide hauek ditu: Jose Antonio Ardanza, Federico Mayor Zaragoza, Félix Martí, Joaquín Achúcarro, Daniel Innerarity, Txomin Bereziartua eta Juanita Carro.

Profesionalen talde bat arduratzen da lana diseinatzeaz eta garatzeaz, Mikel Mancisidor zuzendaria buru dela. Hona hemen gaur egun talde horren kide direnak: Olga Andueza, Helena Orella, Monika Vázquez, Belen Uranga, Rubén Iñiguez, Jasone Unzueta, Estibaliz Izagirre, Rebeca Carrión, Josune Rojas eta Marta Urrutxi.



## Misioa, ikuspegia eta balioak

### Misioa (zertarako)

Euskal gizartearen (gizarte zibila eta erakundeak) eta nazioarteko komunitatearen (bereziki UNESCOren eta NAZIO BATUEN sistemako gainerako erakundeen) arteko elkarreragina sustatzea zientziaren, hezkuntzaren, kulturaren, bakearen, garapen iraunkorraren, ingurumenaren eta giza eskubideen arloetan, irizkiak eta irizpideak emanez, sormenaren, eraginaren, prestakuntzaren, berrikuntzaren eta dibulgazioaren bidez.

### Ikuspegia (zer izan nahi dugu)

UNESCO Etxea erakunde sendoa, ospetsua eta independentea da, errekonozimendua du, eta kalitate-irizpidez jarduten du. Erakundearen bazkide eta lagunaren taldea zabala eta plurala da. UNESCO

Etxearen zuzendaritza batzardea aktiboa da, eta erakundearen lantalde profesionala, berriz, goimailakoa, kohesioduna eta sendotua. Misioa betetzean lortutako gizarte-dimentsioa, -garrantzia, -proiekzioa eta -baliagarritasuna ikusita, UNESCO Etxea erreferentzia dugu EAEn. Halaber, bere lan esparruetako sormenari, eragin eraldatzaileari, zabalkundeari eta berrikuntzari erreparatzen badiogu, Europako erreferentzia nagusien artean dago.

### Balioak (zerk bultzatzen gaitu)

Honela dio UNESCOren konstituzioaren hitzaurreak: «gerrak gizakien buruan sortzen direnez, gizakien buruan eraiki behar dira bakerako oinarriak». UNESCO Etxea bake justua eta duina eraikitzearen aldekoa da, pertsona oinarri hartuta, hezkuntzaren, zientziaren, kulturaren eta informazioaren bitartez. Horretarako, oinarriko

askatasunak eta aniztasuna errespetatzea defendatzen du, arrazagatiko, sexuagatiko, sexu-joeragatiko, hizkuntzagatiko edo erlijioagatiko bereizketarik egin gabe. UNESCO Etxeak bere egiten ditu Nazio Batuen berariazko balioak: giza eskubideak, demokrazia, tolerantzia, justizia eta askatasuna errespetatzea eta sustatzea. UNESCO Etxearentzat balio horiek behar-beharrezkoak dira gure herrialdearen errealitatean, eta aurrera eramateko konpromisoa hartzen du. Eguneroko lanean UNESCO Etxea bat dator honako balio hauekin: berrikuntzarekin, sormenarekin, kalitatearekin, efikaziarekin eta eraginkortasunarekin, pertsonaren garapen integralarekin (bere lantaldearekin berarekin ere bai, jakina), herrialdearen etorkizunaren erantzukizunarekin eta gizarteari zerbitzua ematearekin.



Ohorezko Bazkideen Aholku Batzardea, Zuzendaritza-kontseilua eta lan taldea (Carlton Hotela, Bilbo. Irailak 21).

**UNESCO Etxea irabazi-asmorik gabeko erakunde (GKE) da** Eusko Jaurlaritzaren Erregistroan 1991n inskribatua eta 2006an Onura Publikokoa deklaratu. UNESCO

(Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakunde) erakundearen printzipioak, programak eta jarduera-ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoz sortu zen.

Egun, elkarteak 90 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundeari zentzua eta laguntza ematen dion gizarte-oinarria. Bestetik, UNESCO Etxearen lagunak daude; horiek

erakundearen jardueretan lagundu eta parte hartzen dute, batzuek gehiago, beste batzuek gutxiago. Legean eta gure estatutueta ezarritakoaren arabera, bazkideen batzar orokorrak hautatzen du zuzendaritza-kontseilua. Egun, honako hauek dira kontseiluko kideak: Ruper Ormaza, lehendakaria; Nanga de Gomendiourrutia, lehendakariordea; Xabier Monasterio, idazkaria; Ramón Salbidegoitia, diruzaina; eta Jon Arrieta, Itziar Idiazabal eta Paul Ortega, bokalak.

Zuzendaritza-kontseilua erakundearen gobernu-organo nagusia da. Jarduera-ildo orokorrak



Uztailak 1. Milurteko Garapen Helburuengatik Banda Zuriaren eguna.

## Sareak eta aliantzak

### UNESCO Etxeak

harreman ofizialak ditu UNESCOrekin, eta Nazio Batuen Batzorde Ekonomiko eta Sozialaren (ECOSOC) aholku-erakundeetako bat da. Horrez gain, Nazio Batuen Informazio Publikoaren Saileko (DIP) kide da. Bestetik, UNESCO Etxeko Dokumentazio Zentroa UNESCOrekin Elkartutako Liburutegi Sareko (UNAL) kide da.

Bestalde, UNESCO Etxea UNESCO Zentroen, Elkarleen eta Kluben Mundu Federazioko (FMACU) kide da, UNESCO Zentroen, Elkarleen eta Kluben Espainiako Konfederazioaren barruan dago, eta era aktiboan aritzen da lankidetzan UNESCOri laguntzeko Espainiako Batzordearekin. EAEko Gobernuaren Kanpoko Erakundearen Koordinadoran jarduten du. 2005ean, garapenerako eta sentsibilizatorako hezkuntzari buruzko lantaldean jardun zuen.

Bilboko Udala Lankidetzako Kontseiluaren partaidea da.

Hainbat erakunderekin sinatu ditugu elkarlanerako hitzarmenak: UNESCOCat (Centre UNESCO de Catalunya), Foro Rural Mundial, Pax Romana - MIIC, Fundación Cultura de Paz, Caja Laboral-Euskadiko Kutxa, Asociación para las Naciones Unidas (ANUE) eta Capitulo Español del Club de Roma-ko euskal taldea.

UNESCO Etxea zenbait entitate, erakunde eta programarekin aritzen da elkarlanean, besteak beste: UNESCOren MaB Programa, URDAIBAiko Biosfera Erreserbako Patronatua, UBUNTU - Foro Mundial de Redes, EHUko Nazioarteko Ikerketen katedra, Barandiaran Kristau Elkarlea eta 2015 Milurtekoko Helburuak - Aitzakiarik Gabe kanpaina.

EHUko UNESCO katedrak bultzatu eta haiekin lankidetzan aritzen da: Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO katedra eta Ondare Linguistiko Unibertsitari buruzko UNESCO katedraren, hain zuzen ere.

UNESCO Etxeak elkarlanerako hitzarmenak ditu Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko Foru

Aldundiarekin. Halaber, erakunde eta enpresa hauen laguntza du: Bilboko Udala, Donostiako Udala, Basauriko Udala, Bermeoko Udala, Gernika-Lumoko Udala, Irizar S.Coop., Abando Bidaiak, ULMA, Auzo Lagun, Cimas Innovacion y Medio Ambiente, El Correo taldea eta Caja Laboral-Euskadiko Kutxa.

# 3

## Lan arloak

## Nazioarteko Lankidetzaren eta Giza Eskubideak



Elkartasun Gymkhana. Basauri. Abenduak 17.

**Nazioarteko Lankidetzaren esparruan,** UNESCO Etxearen lan-ildoak gazteriar prestakuntza eta orientazioa ematea dira, nagusiki.

Horretarako, hezkuntza-eskaintza zabala du. 2005ean, giza eskubideei, Nazio Batuei eta garapenerako lankidetzari buruzko lau ikastaroko programa

burutu da EAEko hiru herrialdeetan. UNESCO beken programarekin jarraitu da, eta horren bidez EAEko 11 gazte hegoaldeko herrialdeetako UNESCOren zenbait bulegotan lanean hasi dira, hezkuntzako, zientziako, kulturako, giza eskubideen eta komunikazioko proiektuak eta

programak garatzen. Gainera, sei bekadunek beka berritza lortu dute, eta esperientzia horren ondoren, beste bost UNESCOk kontratatu ditu. Hainbat herrialdeetan egiten dute lan: Kanputxea, Txile, Costa Rica, Kuba, Ekuador, Guatemala, Indonesia, Jamaika, Kazakhstan, Mexiko, Namibia, Nepal eta Uruguai.



Aurten ere, Basauriko Udalarekin batera jarraitu dugu, gazteei prestakuntza eta orientabideak ematen, garapenarekin lotutako lankidetzeta-gaietan. Besteak beste, gai horri buruzko ikastaro bat eman da, eta horri esker, hiru gaztek hiru hilabeteko praktikak egin dituzte garapenerako lankidetzako proiektuetan, Guatemalan, Mexikon eta Perun.

Bakerako giza eskubidearen esparruko jarduerak ere

nabarmendu nahi ditugu. Batetik, UNESCO Etxeak Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordean parte hartu zuen Genevan; bertan, bakerako giza eskubidearen kodifikazio-prozesuari ekin beharra adierazi zen. Gainera, mintegi bat antolatu genuen 'Bakearen Giza Eskubideari buruzko Adierazpen Unibertsalaren Proiektu' bati buruz, Gernikan. Ospe handiko aditu nazionalak hartu zuten parte, helburu honekin: gizarte zibilean

beharrezko lanak sustatzea, Nazio Batuei Bakearen Giza Eskubideari buruzko adierazpenaren aurreproiektua aurkezteko. Mintegi horretako txostenei eta ondorioei buruzko informazioa gure web orrian ikus daitezke. Gainera, UNESCO Etxeke ordezkari batzuek aktiboki hartu zuen parte Nazio Batuen Giza Eskubideen Azpibatzailearen bileretan.

**Helena Orella**  
h.orella@unescoeh.org

**Marta Urrutxi**  
m.urrutxi@unescoeh.org

tolerantziaren eta giza eskubideen balioak zabaldu nahi ditugu, eta aldi berean, tresna erabilgarritzat har gaitzela nahi dugu, euskal hezkuntza-komunitateak eremu horietan dituen erronkei aurre egin diezaien.

2005eko jardueren artean, zortzi euskal ikastetxeren parte-hartzea nabarmendu behar da UNESCOri atxikitako eskolen Munduko Sarean. Sare hori 8.000 eskolak baino gehiagok osatzen dute. Gainera, uztailen Pontevedran egindako UNESCOri atxikitako Estatuko Eskolen XVIII. Topaketa ere azpimarratzeko modukoa da.

Nazio Batuen lana euskal ikastetxeetara hurbiltzeko asmoz, 2005ean bi koaderno didaktiko argitaratu ziren. Lehena, *La UNESCO y las Reservas de la Biosfera* -

*UNESCO eta Biosfera Erreserbak*, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren hamarkadaren esparruan. Bigarrena, *La educación como derecho humano - Hezkuntza Giza Eskubide*, munduko hezkuntzaren egoerari buruz eta Milurtekoko Garapen Helburuen kanpainari buruz hezkuntza-komunitateak sentsibilizatzeko.

Haurren Osoko Bilkura antolatu genuen, gai hau ardatz hartuta: Euskara etorkizuneko Europan. Eusko legebiltzarrean egin zen, 2005eko ekainaren 13an, eta EAeko 14 ikastetxetako 160 ikaslek baino gehiagok hartu zuten parte. Osoko bilkuran, UNESCO Etxeak egindako material didaktikoaren laguntzaz ikastetxeetan landutako adierazpen bat onartu zuten ikasleek, aho batez.

Euskal ikastetxeetan kultur aniztasunak sortzen dituen beharrei erantzuteko, 2005ean *Hezitzaileak kulturartekotasunean eta immigrazioan hezteko SANDU gida didaktikoa* argitaratu zen, Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzaren laguntzaz. Abenduan, jendaurrean aurkeztu zutenean, gure artean izan zen Miquel Angel Essomba egilea eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea.

Gazteria sailaren helburua euskal gazteriak eta instituzioek Nazio Batuen Sistemarekin eta nazioarteko erakundeekin duten lotura sustatzea da. Bakearen kultura bultzatzeko beste herrialde batzuetako gazteen esperientziak hurbiltzeko asmoz, abenduan 'Gazteen zeregina bake-erakuntzan: Ipar Irlandako esperientzia' mintegia egin zen Bilbon. Public Achievement erakunde

zuzendari Paul Smyth-ek eta Ulster-eko unibertsitateko irakasle Karen Beattie-k hartu zuten parte.

Gainera, UNESCOk antolatutako Gazteriaren Munduko Foroan Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko kide batek parte hartzea erraztu zen. Parisen egin zen, irailean, 'Gazteak eta zibilizazioen, kulturen eta herrien arteko elkarrizketa: hezkuntzan,

zientzietan, kulturen eta komunikazioan ekintzak egiteko ideiak' izenburupean.

**Monika Vázquez**  
hezkontza@unescoeh.org



Eusko Legebiltzarrean Umeen Osoko Bilkura.

## Hezkuntza eta Gazteria

### UNESCO Etxeke hezkuntza-arloaren

helburua eskola-esparruko Nazio Batuen eta UNESCOren programak eta argitalpenak euskal hezkuntza-komunitatean zabaltzea da. Hezkuntza-esparruan, elkarbizitzaren,



10. UNESCOren Biosfera Erreserba Sarean arteko gazteen trukea.

## Ingurumena

**Aurten**, Garapen Iraunkorrari buruzko Urdaibaiko XI. Jardunaldiak egin ditugu. Etapa berriko berritasun eta ezaugarri gisa, Biosfera Erreserben eta UNESCO katedren Latinoamerikako, Portugalgo eta Espainiako ordezkarien talde handi bat bildu zen jardunaldietan. Mexiko, Costa Rica,

Honduras, Kolonbia, Ekuador, Argentina, Txile, Brasil, Portugal, Bartzelona, Lugo eta Kanariar Uharteetako 28 txostengilek hartu zuten parte. Jardunaldietan, zenbait alorretako informazio-truke aktiboa sustatu zuten; esate baterako, parte-hartzeari, hezkuntzari, trebakuntzari, ikerketari, ezagutzari, eta baliabide naturalak eta garapen sozio-ekonomikoa modu iraunkorrean erabiltzeari buruzkoa. Horren ondorioz, URDAIBAIn inguruan, Biosfera Erreserben eta UNESCO katedren Latinoamerikako sarea osatu da, eta gaur egun, garapen-fasean dago.

Jardunaldi horiek UNESCO Etxearen, Urdaibai Biosfera Erreserbaren eta sortu berri den Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHU-UNESCO katedraren arteko elkarlanaren ondorio da. UNESCO Etxeak Kyotoko

Protokoloa indarrean sartzeari (otsaila) buruzko jarduerak antolatu ditu eta EAEn parte-hartzea dinamizatu du Nazio Batuen Munduko Baliabide Hidrikoen Azterketarako Mundu Programan (WWAP); programa hori erantzun garrantzitsuak ematen ari da aurten, 2006an.

Aurtengo jardueretarako, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren laguntza izan dugu, bereziki Biodibertsitatearen eta Uren Zuzendaritzetako.

**Jasone Unzueta**  
ingurumena@unescoeh.org



'Hizkuntzak eta Immigrazioa' Kongresua. Bilbo, Otsailak 8-9.

## AMARAUNA

[www.amarauna-languages.com](http://www.amarauna-languages.com)

### UNESCO Etxearen hizkuntza-arloak

AMARAUNA Hizkuntzen Sarea izena du, eta helburua ukipenean dauden hizkuntzen egoerari buruzko ezagutza sustatzea eta iritzi publikoa ondare linguistikoa gorde beharraz sentsibilizatzea da. Horretarako, hizkuntza gutxituen egoera soziolinguistikoaren berri izan behar da eta berri hori zabaldu, hizkuntzak desagertzeko joera orokorra aldatzeko neurriak har daitezten.

AMARAUNAK Batzorde tekniko baten laguntza du, Euskal Herriko Unibertsitateko, Deustuko Unibertsitateko, Salamancako Unibertsitateko eta Bilboko Begoñako Andra Mari Magisterio eskolako irakasleez osatua. Hona hemen batzorde horretako kideak: Itziar Idiazabal, Esti Amorrortu, Andoni Barreña eta Ane Ortega. Bestalde, lankidetzaren harreman bereziak ditu Bartzelonako LINGUAPAX institutuarekin.

2005ean, munduko hizkuntzei buruzko txostena argitaratu zuen ingelesez Multilingual Matters-ek *Words and Worlds: World Languages Review* izenburupean, eta euskaraz, Euskal Herriko Unibertsitateak, *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena* izenburupean. Frantsesezko eta gaztelaniazko bertsioak inprentan daude dagoeneko.

Lan horri jarraipena emateko, *Europako Hizkuntzak* liburua argitaratu zen (CD formatuan ere bai). Bertan, Europako aniztasun linguistikoa eta kontinenteko hizkuntza bakoitzaren oinarriko ezaugarriak deskribatzen dira. Horren bidez, Europako aniztasun linguistiko handia erakutsi nahi da, modu grafikoan eta publikoari jakinaraziz. Oro har, jendeak uste du Europan estatuen hizkuntza ofizialak baino ez direla hitz egiten. Helburu nagusia uste horri aurre egitea da, bai eta aberastasun linguistikoaren berri eman eta eleaniztasuna sustatzea ere.

Ilido horretatik, AMARAUNA hizkuntzen sareak *Hizkuntzak eta Immigrazioa* kongresua egin zuen Bilboko Euskalduna jauregian, 2005eko otsailean. Kongresua Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin lankidetzan antolatuta zen, eta ospe handiko nazioarteko adituak bildu ziren. Besteak beste, Kutlay Yagmur eta Sally Boyd, hizkuntza-politikak eta immigrazioaren ondorioak

–bereziki Europaren iparraldekoak– ongi ezagutzen dituztenak. Gainera, estatuko adituen –Artur Nogerol eta Carme Junyent, esate baterako– eta Euskal Herriko teknikarien parte-hartzeari esker, gaurkotatzen dituztenak, eta jarraipena izango du, zalantzarik gabe, hurrengo urteetan.

AMARAUNAK publikoari jakinarazteko eta sentsibilizatzeko zenbait alderdi garatzen ditu, web orriaren bidez eta aldizkari espezializatuetan argitaratutako artikuluen bidez. Horren erakusgarri dira 2005ean argitaratutako artikulua eta hitzaldiak: - Uranga, B. (2005): 'Immigrazioa, identitatea eta euskara: Getxolinguae, Getxo'. [www.getxolinguae.net](http://www.getxolinguae.net). Getxo (hitzaldia). - Uranga, B. eta beste batzuk (2005): 'Munduko hizkuntzen izenak euskaraz', Uztaro 54 (artikulua).

**Belen Uranga**  
[b.uranga@amarauna-languages.com](mailto:b.uranga@amarauna-languages.com)

**Esti Izagirre**  
[e.izagirre@amarauna-languages.com](mailto:e.izagirre@amarauna-languages.com)



Kontsulta gela.

## Dokumentazio-zentroa


### UNESCO Etxearen

dokumentazio-zentroak Nazio Batuen Sistemaren, eta bereziki, UNESCOren printzipioei, programei eta jarduerari buruzko dokumentazioa eman, eta horiei buruzko informazioa zabaltzen du. 2003tik UNESCOko Liburutegi Elkartuen Sareko (UNAL) kidea da.

### Dokumentazio-funtsa

- 2.900 agiri baino gehiago ditu, ataletan sailkatuta. Hona hemen atalok: munduko txostenak, hezkuntza, gizarte-zientziak, garapenerako lankidetzaren ingurumena, bake kultura, giza eskubideak, kultura eta ondarea, eta munduko hizkuntzak.
- Aldizkako 80 argitalpen.
- Nazio Batuen Sistemaren dokumentazio ofiziala.
- Munduko goi-bilereiei buruzko konferentziei buruzko dossierak.
- Ikus-entzunezkoak eta material didaktikoa.

## Kontsultak



### Zerbitzuak

- Dokumentuak gelan bertan, telefonoz eta posta elektronikoz kontsultatzeko aukera.
- Bibliografiari buruzko orientabidea eta banakako harrera.
- UNESCO Etxearen datu-base bibliografikoa 'on line' kontsultatzea.
- UNESCOren datu-baseetan kontsultak egitea.
- Sumarioen eta berrikuntza bibliografikoen buletinak.
- Liburuen mailegua.
- Erreprografia-zerbitzua.
- UNESCO argitalpenen banatzaile ofiziala.

2005ean informazioko 576 kontsulta jaso dira, hau da, 2004an baino % 6 gehiago.

Erabiltzaileei dagokienez, informazioaren kanpo-eskaera gehienak unibertsitateko ikasleek egiten dituzte, eta ondoren, zenbait esparrutako ikertzaileek eta profesionalak. Posta elektronikoa gero eta gehiago erabiltzen da kontsultak egiteko. Kontsulten jatorriari dagokionez, gehienak EAEkoak dira, eta % 10 Latinoamerikako herrialdeetakoak (Argentina, Mexiko eta Peru, batik bat).

Informazioaren eta dokumentazioaren eskaera gehienak UNESCOren eta Nazio Batuekin lotutako alderdiei buruzkoak dira: historiari, funtzionamendu-egiturari, lan-arloei eta berrikuntza-prozesuari buruzkoak. Gehien eskatutako gai orokorrak ingurumena, hezkuntza eta kulturartekotasuna dira. Gainera, Nazio Batuen sistema osatzen duten erakundeek egindako mundu-txostenetako eta estatistika-urtekarietako datuen kontsultak ere azpimarratu behar dira.

2005ean, funts bibliografikoa handitu egin da: 288 liburuki gehiago ditu (% 24ko igoera, 2004. urtearekiko).

**Rubén Íñiguez**  
[cdoc@unescoeh.org](mailto:cdoc@unescoeh.org)





'Emakumea, erbestea eta edertasuna' ACNUR-Euskal Batzordeko argazki erakusketa.  
Koopera Zentroa. Martxoak 8-18.

## KOOPERA Zentroa: Nazio Batuak eta Nazioarteko Lankidetzak

**2005. urtean,** KOOPERA Zentroa finkatu egin da Nazio Batuen Sistemari eta Nazioarteko Lankidetzak espezializatutako eta publikoari zabalduko informazio-zentro gisa. KOOPERA Bizkaiko Foru Aldundiak, UNESCO Etxeak eta Euskadiko Kutxak bultzatutako gizarte-erakundea da.

Helburu nagusia informazioa eta prestakuntza ematea da, bai eta nazioarteko lankidetzako eta beste gizarte-jarduerak batzuetako esperientziak trukatzeko zentroa izatea ere. Euskal gizartearen elkartasuna sustatzen lagundu nahi da eta lankidetzako partaide izan dadila, aldaketa-agente aktiboa izanik. Gainera, KOOPERA Zentroak erraztasunak ematen dizkie euskal gazteei, eta Bizkaikoei bereziki, Milurteko Helburuen 2005eko Kanpainari

buruzko informazio gehiago izateko, bai eta Nazio Batuen Sistemako nazioarteko erakundeei buruzko ezagutza handiagoa izateko ere.

Nazioarteko boluntarioek ardatz garrantzitsua osatzen dute KOOPERA Zentroan. 2005ean, interesatuta zeudenei orientazioa eman zaie nazioarteko lankidetzan, eta nazioarteko erakundeetan parte hartzea bultzatu da, UNESCOn batik bat.

Gainera, 2005ean ikastaro monografikoak, tailerrak, mintegiak eta hitzaldiak egin dira, Nazioarteko Lankidetzako gaiei buruz, Nazio Batuen Sistemari buruz eta UNESCO Etxeak lantzen dituen arloei buruz; esate baterako, ingurumenari, hezkuntzari eta garapenari buruz (2005eko prestakuntza-eskaintza ikusgai dago ikastaroen egutegian, Interneten: [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org)).

2005ean, pertsonalki erantzun zaie zentrori joan diren 1.550 pertsonen kontsultei. Gainera, beste 320k 'e-mail' bidez eskatu dute informazioa. 198 ordu eman dira prestakuntzan, eta guztira 97 ikasle egon dira.

Nabarmenezkoa da KOOPERA Zentroaren nazioarteko jarduerak, nazioarteko beste erakunde batzuekin elkarrizketan aritzeko, bereziki Nazio Batuen erakundeekin. Proiekzio

horri esker, 2005ean, lankidetzarako aukera izan du, Nazio Batuen Eskualdeko Informazio Bulegoarekin (RUNIC), Garapenerako Nazio Batuen Programarekin (PNUD), Errefuxiatuei laguntzeko Nazio Batuen Batzordearekin (ACNUR) eta Marshall fundazio alemanarekin (GERMAN MARSHALL FUND), zenbait proiektu garrantzitsutan parte hartzeko. Esate baterako, Xingola Zuriaren Kanpainan, 'Giza Garapenari buruzko 2005eko Txostena'-ren aurkezpenean, Kulturartekotasunari eta Erljioartekotasunari buruzko Nazioarteko Kongresuan eta Marshall Fundazioarekin Elkartruckerako Nazioarteko Programan.

**Rebeca Carrión**  
[koopera@unescoeh.org](mailto:koopera@unescoeh.org)

# 4

Erakunde-  
ekitaldiak  
eta aurkezpen  
publikoak

## Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordea

**Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordea,** gure Estatuetan ageri den maila goreneko kontsultarako organoa, 2005ean eratu da kide hauekin:

**Jose Antonio Ardanza jauna,** Eusko Jaurlaritzako Lehendakari ohia eta Euskalteleko Presidentea.

**Federico Mayor Zaragoza jauna,** UNESCOren Zuzendari Nagusi ohia, Cultura de Paz Fundazioaren Presidentea eta Zibilizazioen arteko Elkarrizketarako Nazio Batuen Goi Mailako Taldearen Presidentekidea.

**Fèlix Martí jauna,** Centre UNESCO de Catalunya Ohorezko Presidentea.

**Daniel Innerarity jauna,** Zaragozako Unibertsitateko irakaslea, filosofoa, saiakera-idazlea eta saiakera nazionalako sariduna.

**Joaquín Achúcarro jauna,** pianojolea, UNESCOk Bakerako Artista izendatua.

**Juana Carro andrea** UNESCOko funtzionario ohia.

**Txomin Bereciartua jauna** Novia Salcedo Fundazioko Ohorezko Presidentea eta UNESCO Etxearen fundatzailea.



Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordea. Carlton Hotela, Bilbo. Irailak 21.

2005eko irailaren 21ean, Bakearen Nazioarteko Egunean, Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordearen lehen bilera egin zen. UNESCO Etxearen Kultur Aniztasunari buruzko Adierazpena prestatu eta onartu genuen.

Adierazpen hori UNESCOko Zuzendari Nagusiak 33. biltzar nagusian aurkeztu zuen Kultura Edukien Aniztasunaren eta Adierazpen Artistikoen

Babesari buruzko Nazioarteko Biltzarraren aurreproiektuari UNESCO Etxeak egin zion ekarpena izan zen. Aurreproiektua 2005eko urrian onartu zen.

Adierazpen horrek munduan askatasunaren eta kultur eta hizkuntz aniztasunaren sustapenerako EAEko ekarpena izan nahi du, bake eta garapenerako oinarri moduan.





Prentsaurrean Adierazpenaren aurkezpena. DEIAk utzitako argazkia.

## Kultur Aniztasunari buruzko Adierazpena Bakearen Nazioarteko Egunean. UNESCO Etxearen ekarpena

**Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordearen** bilera dela-eta, UNESCO Etxeak honako hau

### Adierazten du

1) Nazio Batuen Gutuna eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala garatuz, 2005eko Nazio Batuen Estatu Buruen Gailurraren Deklarazioak hau dio: «kultura eta zibilizazio guztiek gizateria aberasten lagundu dezakete. Mundu osoan etnien, erlijioen eta kulturen aniztasuna onartu behar da, bai eta kultura eta zibilizazioen arteko elkarrizketa, elkar ulertzea, tolerantzia eta errespetua ere, horiek baitira nazioarteko bakea

eta segurtasuna bultzatzeko bideak».

2) Ongi deritzogu 'Gaur egungo mundu anitzaren Kultur Askatasunari' buruzko Giza Garapenari buruzko Txostenari, 1994koa (PNUD), Kultur aniztasunaren aldeko Madrilgo adierazpenari, 2005ekoa, eta UNESCO Etxeak 2005ean egindako Munduko hizkuntzei buruzko txostena: hitzak eta munduak agiriari.

3) UNESCOren 2001eko Kultur Aniztasunaren Deklarazio Unibertsala garatuz, UNESCOko Zuzendari Nagusiak 33. Biltzar Nagusian (2005eko urria) aurkeztuko duen Kultura Edukien Aniztasunaren eta Adierazpen Artistikoen Babesari buruzko Nazioarteko Biltzarren proiektuari gure babesa ematen diogu. Biltzar nagusiari tresna antolatzaileak, arau-emaileak, finantzarioak eta segimendukoak sendotzea proposatuko diogu, izenpetzen duten estatuak bete dezaten eta gizarte zibilarren ahalik eta zati handienak parte har dezan.

4) Gaur, irailaren 21a, Bakearen Nazioarteko eguna da, eta ezin dugu ahaztu kultur aniztasuna bermatzea dela herrien arteko bake duinaren, hau da, askatasunaren bakearen, oinarrietako bat. Ez dugu sinisten kulturen arteko talkan, kultura bizien arteko elkarbizitzan baizik, guztiontzat aberasgarria delako. Beraz, egin berri

den Nazio Batuen Estatu eta Gobernu Buruen Gailurrak (2005) ekimena onartu izanak poztu egiten gaitu. Ekimena Zibilizazioen arteko Elkarrizketa aztertze eta abian jartzeko goi-mailako talde bat sortzeko da, idazkari nagusiak egina, eta ekimen horri gure babesa eman eta emaitza garrantzitsuak eman ditzala opa diogu. Bakearen kultura sortzeak gatazkak lehenago bideratzen lagunduko duelakoan gaude.

5) Kultur aniztasuna eta hizkuntz aniztasuna bat datozen kontzeptuak dira. Kultur aniztasunak berekin du hizkuntzak errespetatzea eta sustatzea, eta horiek kultura sortzeko eta adierazteko oinarritzeko bideak dira. Munduko 6.000 hizkuntzak –horietatik 2.000 baino gehiago galzorian daude– gizateriaren kultur ondare nagusietako bat dira. Hizkuntz ondare unibertsala babestea eta sustatzea ezinbestekoa da kultur aniztasunerako, eta beraz, 2005eko 'Hitzak eta Hizkuntzak' txostenaren ondorioak eta gomendioak onartzen ditugu. Hizkuntza guztiek potentzialtasun intelektual eta komunikaziozko potentzialtasun berak dituzte, eta beraz, ez da egokia haien arteko hierarkiak ezartzea. Hizkuntzen eta kulturen balioa azpimarratzea beharrezkoa da, norberaren eta komunitatearen nortasunaren eta

autoestimaren osagaiak diren aldetik. Horregatik, botere publikoek beharrezko bitartekoak erraztu behar dituzte, haien babestu eta bultzatzeko, lurraldean hitz egiten diren hizkuntza guztiak ofizialki onartuta daudela bermatzeko. Hizkuntz jarrera negatiboak sortzen dituzten aurreiritzi linguistikoak baztertu egiten ditugu, hizkuntza gutxituak dituzten komunitateetan bereziki kaltegarriak direlako.

6) UNESCO kultura eta hizkuntza guztien etxea izatea nahi dugu, eta hala, munduko topaketa-gune bat sortu. Erakundeari eskaera hau egin nahi diogu: lanetan eta bileretan ahalik eta kultura eta hizkuntza gehien erabiltzeko, eta ez Estatuetan gehiengoak direnak bakarrik. Gainera, uste dugu UNESCOk, 2001eko Kultur Aniztasunari buruzko Adierazpena garatuz, 'Hizkuntz Askatasun Unibertsalari buruzko Hitzarmena' sustatu behar duela, eta horretan lan egiten hasiko gara.

7) Kultur aniztasuna eta biodibertsitatea ondorengo belaunaldiei utzi beharreko ondasunak

dira. Kultur, hizkuntz eta biologi aniztasunaren oinarritutako garapen iraunkorra bultzatuko dugu. Defendatzen dugun kultur aniztasuna tokian tokiko aniztasunaren errespetuan eta sustapenean oinarrituko da. Euskadiko erakunde bat garen aldetik, gizarte plurala eta nortasun anitzekoa egiteko konpromisoa hartzen dugu, euskal hiritar guztioi ahalik eta askatasun handiena emateko eta kulturen arteko gatazkarik ez izateko, mugimendu intoleranteak eragin baititzaie. Elkarbizitza sendotzea proposatzen dugu, euskara ikasiz, zabalduz eta erabiliz, Euskadiko berezko hizkuntza baita; hala, benetako elebitasuna lortu eta eleaniztasunerako bidean aurrera egiteko aukera egongo da. Beste hizkuntza eta kultura batzuk ere hobeto ulertzea erraztuko dugu, immigranteenak barne, jakina.

8) Nazioarteko merkataritzak —herrien garapenerako hain beharrezkoa— zenbait printzipio, arau eta balio aintzat hartu behar dituela

uste dugu, haren onurak kultura guztiek jaso ditzaten. Horretarako, kultur aniztasunaren eragin garrantzitsuak dituzten zenbait onura eta zerbitzu desberdin tratatzen jakin behar du nazioarteko merkataritzak. Kultur onura eta zerbitzu horiek bereizten dituzten merkataritzak kanpoko ezaugarriak errespetatu egin behar dira. Horrek ez du esan nahi nazioarteko merkataritzaren bolumentea eta intentsitatea mugatu egin behar direnik, maila pertsonalean eta kolektiboan askatasun hori guztion onerako burutzeko arautze-esparrua definitu behar dela baizik. Munduko iritzi publikoak sormenezko espezifikotasuna justifikatzen duten irizpideak hautemateko, nazioarteko kultur onura eta zerbitzuen salerosketarako tasa bat ezartzea proposatuko dugu, zergapeko enpresek eta UNESCOk administratutako funts bat osatzeko, Kultur Ondare Unibertsala sustatzeko eta zabalteko.

9) Euskal erakunde garen aldetik, gizarte irekia errazteko ardura hartuko dugu; hau da, bertakoa balioetsi,

babestu eta bultzatzeaz gain, helmen handiko ikuspegia sustatuko dugu, ekonomia-, gizarte-, gobernu- eta lege-tresnak dituen. Horretarako, Europan eta munduan aliantzak eta baterako ekintzak egingo ditugu.

10) Gizarte zibilarri eta Euskadiko, Espainiako, Europako eta munduko agintariei dei egiten diegu, printzipio horiek eta UNESCOren hitzarmena onartzeko, eta kultur aniztasuna babestu eta sustatzeko erabil dezatela. Adierazpen honen edukiak dagozkien jarduerak eta erantzukizun-esparruetan babestea ere eskatzen diegu.

Bilbon, 2005eko irailaren 21ean.

**Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordeko kideak:**  
Joaquín Achúcarro  
José Antonio Ardanza  
Txomin Bereciartua  
Juana Carro  
Daniel Innerarity  
Félix Martí  
Federico Mayor  
Zaragoza

**Ruper Ormazabal (UNESCO Etxeko lehendakaria)**  
Mikel Mancisidor (UNESCO Etxeko zuzendaria)

MARTÍ, F. [et al.] (2005). Words and Worlds. World Languages Review. Clevedon (UK): Multilingual Matters UNESCO Etxea. <http://www.unescoeh.org> /// [http://www.amarauna\\_languages.com](http://www.amarauna_languages.com)  
KULTURA MINISTERIOA. ESPAINIA. (2005). Declaración de Madrid en favor de la diversidad cultural. [http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Declaracion\\_Madrid.pdf](http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Declaracion_Madrid.pdf)  
NAZIO BATUAK (1945). Carta de las Naciones Unidas. [http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Carta\\_ONU.pdf](http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Carta_ONU.pdf)  
NAZIO BATUAK. BATZAR NAGUSIA (2005). Documento final de la Cumbre Mundial 2005. [http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Cumbre\\_2005.pdf](http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Cumbre_2005.pdf)  
NAZIO BATUAK. BATZAR NAGUSIA (2005). Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala. [http://www.unescoeh.org/dokumentuak/GGEE\\_Adierazpena.pdf](http://www.unescoeh.org/dokumentuak/GGEE_Adierazpena.pdf)

PNUD (2004). Informe sobre Desarrollo Humano 2004: La libertad cultural en el mundo diverso de hoy. Madrid: MundiPrensa. [http://www.unescoeh.org/dokumentuak/IDH\\_2004.pdf](http://www.unescoeh.org/dokumentuak/IDH_2004.pdf)  
UNESCO BATZAR NAGUSIA (2005). Declaración Universal de la UNESCO sobre la Diversidad Cultural. [http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Declaracion\\_diversidad\\_cultural.pdf](http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Declaracion_diversidad_cultural.pdf)  
UNESCO. BATZAR NAGUSIA (2005). Informe preliminar del Director General sobre la situación que debe reglamentarse y el posible alcance de ésta, acompañado de un anteproyecto de convención sobre la protección de la diversidad de los contenidos culturales y las expresiones artísticas. [http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Informe\\_preliminar\\_agosto\\_2005.pdf](http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Informe_preliminar_agosto_2005.pdf)



Kulturarteko eta Erljioarteko Elkarrizketari buruzko Nazioarteko Biltzarren amaiera ekitaldia.

## Gertaera garrantzitsuak

**Otsailaren 15ean, Kyotoko Protokoloa** indarrean sartu baino egun bat lehenago, UNESCO Etxeak, garapen iraunkorri eta ingurumen-hezkuntzari buruzko UNESCO-UPV/EHU katedraren laguntzaz, mahai-inguru bat antolatu zuen. Bertan, protokoloa indarrean sartzea eta euskal gizartearen izango zituen eraginak aurkeztu, aztertu eta eztabaidatu ziren.

**Apirilaren 6an** ofizialki aurkeztu zen **Garapen Iraunkorri eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO-UPV/EHU katedra**. Hona hemen ekitaldian parte hartu zutenak: Miren Onaindia, katedraren koordinatzaile orokorra; Mikel Mancisidor, UNESCO Etxeko zuzendaria; Sabin Intxaurre, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburua; Ander Gonzalez, UPV/EHuko Unibertsitate

Hedakuntzako errektoreordea; eta Miguel Clüsener-Godt, UNESCOren MaB Programako aditua.

UNESCO Etxeak Nazio Batuen bi txosten ofizial argitaratu ditu euskaraz 2005ean:

**Uztailaren 27an,** Kofi Annanek, Nazio Batuen Idazkari Nagusiak, egindako **'Milurtekoko Helburuei buruzko 2005eko txostena'** aurkeztu zuen. Hori da helburuak lortzeko orain arte egindako aurrerapenei buruzko lehen txostena. Aurkezpen horretan, María Noel Baeza ere izan zen, Garapenerako Nazio Batuen Programako (PNUD) Egitasmo Nagusietarako arduraduna.

**Irailaren 8an,** **'2005eko Giza Garapenera buruzko txostena: Nazioarteko Lankidetzaren Bidegurutzean: laguntza, merkataritza eta segurtasuna desberdintasun handiko munduan'** aurkeztu zen. Hauek izan ziren aurkezpenaren arduradunak: Javier Madrazo, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburua; Marta Ruedas, Garapenerako Nazio Batuen Programako (PNUD) Europako Bulegoko Alboko Zuzendaria; Jon Emaldi, Euskadiko Kutxako Bizkaiko Zuzendaria; eta

Ruper Ormaza, UNESCO Etxeko Lehendakaria.

**Abenduaren 11a eta 13a bitartean, kulturen eta erlijioen arteko elkarrizketari buruzko nazioarteko biltzarra** egin zuten Bilbon, Pax Romana ICMICA/MIIC-k, Barandiaran Kristau Elkarteak, Haretzak eta UNESCO Etxeak antolatuta. 'Erronka berriak bake grina duen munduan' izenburupean, 300 pertsona baino gehiago bildu ziren biltzarrean, eta 40 herrialdetako 60 adituk baino gehiagok hartu zuten parte. 10 erlijio eta 20 izendapen baino gehiago egon ziren ordezkaturak. Biltzarrekin batera, hezkuntzari eta segurtasunari buruzko bi biltzar egin ziren. Gainera, biltzarrean erlijioen arteko elkarrizketaren aldeko gazteen nazioarteko topaketa egin zen. Zenbait kredituko 20 gaztek –13 herrialdetatik etorriak– erlijio-ekintzarekin lotutako ezagutzak eta bizipenak trukatu zituzten.

Azpimarragarria da komunikabideetan kongresu honek, oihartzun handia izan zuela.



Ezker-eskubi: Luis Ramallo Jn., Ruper Ormaza Jn., Marcio Barbosa Jn., Mikel Mancisidor Jn., Pablo Barrios Jn. Madril. Martxoak 25.

## UNESCO Etxea UNESCOn

**2005ean zehar** egindako lau jarduera nabarmendu behar dira, UNESCOren lotura zuzena dutenak:

Urriaren 3a eta 21a bitartean, UNESCO Etxeko hiru kidek **UNESCOren 33. Batzar Nagusian** parte hartu zuten. Batzarreko saioez gain, lan-bilerak ere egin ziren.

Martxoaren 25ean, Ruperto Ormazak eta Mikel Mancisidorrek

–UNESCO Etxeko lehendakaria eta zuzendaria, hurrenez hurren– **elkarrizketa Alboko Zuzendari Nagusi Marcio Barbosa jaunarekin**. Elkarrizketa horretan, erakundeei buruzko hainbat gai eta UNESCO Etxeak egiten dituen jardueren alderdiak landu zituzten. Elkarrizketaren ondoren, Barbosa jaunak eskutitza bidali zien Ormaza eta Mancisidor jaunei, eskerrak emateko haien gaitasunagatik eta UNESCOren ideiak zabaltzen UNESCO Etxeak izandako dedikazioagatik.

UNESCO **Beken Programaren kudeaketari dagokionez** Unitateen Koordinazioko Bulegoarekin lankidetzan aritu da UNESCOren egoitzatik kanpo, eta harreman zuzena eta jarraitua izan da Jennifer Blinker andrearekin –programaren arduraduna Parisen–. 1998tik, Euskadiko 106 gaztek

hartu dute parte ekimen horretan, eta 47 herrialdetan garatu dituzte UNESCOren proiektuak eta programak.

Monika Vázquez, Hezkuntza arloko arduraduna, izan zen UNESCO Etxearen ordezkaria **Zentroen, Elkarten eta Kluben Mundu Federazioko (FMACU) Mundu Biltzarrean**. Biltzarra uztailaren 18 eta 20 bitartean egin zen Parisen. Bost kontinenteetako 233 ordezkari UNESCO Klub mugimenduari buruz eztabaidatu zuten, eta sendotzean, dinamismoan eta FMACUren eta UNESCOren arteko loturan zentratu ziren. Egun bat lehenago, FMACU berritzeko berriazko batzordeko kide gisa, Monika Vázquez-ek biltzarra prestatzeko lan-saio batean parte hartu zuen.



• UNESCO Etxeko bekadunak munduan. 2005.





## Miren Onandia

### UPV/EHUko Garapen Iraunkor eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedraren Koordinatzaile Nagusia

#### Demokrazia partehartzailea

sendotzea ezinbestekoa da gure gizartearen etorkizuneko erronkei aurre egiteko, eta beraz, garrantzitsua da gizarte zibilaren egitekoa bultzatzea. Horregatik iruditzen zait hain garrantzitsua eta beharrezkoa hezkuntza eta ezagutza nazioarteko ikuspegitik sustatzeko UNESCO Etxeak egiten duen lana. Egindako jardueri esker, aurrerapen garrantzitsuak lortu dira euskal gizartean. Hain zuzen ere, duela gutxi Eusko Jaurlaritzak Onura Publikoko Deklarazioa eman zion UNESCO Etxearen lanari.

UNESCO Etxeak egindako jardura ugarien artean, ingurumenarekin eta garapen iraunkorarekin lotutakoei buruz hitz egingo dut, horretan lan egin baitut 'UNESCOn

lagunen' garaitik. Gai horretan hainbat lan egin dira; besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitatean 'Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO katedra' sortzeko ekimena eta dinamizazioa.

'Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea' Milurtekoko Garapen Helburu bat da; ingurumeneko baliabideen galerari aurre egitea eta politiketan eta programetan garapen-printzipioak sartzea dakar, maila guztietan. Gai garrantzitsua da, tokian-tokian, eskualdean eta nazioartean, natur baliabideak modu iraunkorrean ez erabiltzearen ondorioek mugak jartzen baitituzte Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko. Dena den, ingurumenari buruzko egoera orokorra ez da oso itzaropentsua, Nazio Batuen Milurtekoko Ekosistemen Azterketaren azken txostenean ekosistemetako zerbitzu gehienak (ura, airea, arrantza, klimaren erregulazioa, arrisku naturalak) okerrera doazela hauteman baita. Arazo horren konponbideak ez dira hain errazak, baina modu eraginkorragoan ekingo diogu, etorkizun iraunkoraren aldeko lan-taldeetan sinergiak sortuz.

UNESCO/UPV-EHU Katedraren helburua garapen iraunkorrari

buruzko ezagutzaren ikerketa eta zabalkundea sustatzea eta erakundeen arteko lankidetzaren sendotzea da, maila guztietan. Ikerketaren emaitzen aplikazioak Urdaibai Biosfera Erreserban zentratzen dira bereziki, iraunkortasuna kudeatzeko zentro aitzindaria delako eta kudeaketaren eta ikerketaren arteko komunikazio arina sortzeko asmoa duelako. Honelako funtzionamendua, ekintzazko batasun gisa: UNESCO UPV-EHU Katedra/UNESCO Etxe/Urdaibai Biosfera Erreserba, interes bereziko eredutzat hartzen du MaB Programak (UNESCOn Gizakia eta Biosfera Programa).



## Marta Ruedas

### NBE-ko Garapenerako Egitasmoko Europako Bulegoko Aholkulari Nagusia

BERRIA egunkarian argitaratutako elkarrizketa.  
2005eko irailaren 10a, larunbata.  
Asier Alkorta egindakoa.

Nazio Batuen Garapen Programak (UNDP) Giza Garapenaren Nazio Batuen Programak (UNDP) Giza Garapenaren Nazio Batuen Programak 2005 agiria aurkeztu du. 2000. urtean Milurtekoko helburuak ezarri bazituzten ere, bost urte igaro ondoren, egoera aztertzeke egin dute txostena, txirotasuna murrizteko egitasmoa beteko ez dela sumatuta. Marta Ruedas UNDPren Europako Bulegoko aholkulari nagusia da, eta Bilbon izan da txostena aurkeztzen. Egoera deskribatzeko eta txostenean ematen diren datuak azaldu ditu.

#### Nola deskribatuko zenuke munduko egoera hitz gutxitan?

Mundua ezberdintasunez beteta dago. Herrialde batzuetan, beste batzuetan baino bidegabekeria gehiago daude. Herrialde batzuen barnean ere, oso

gordinak izan daitezke ezberdintasunak. Esaterako, Ameriketako Estatu Batuetan, osasun zerbitzuan hain justu, zurien eta beltzen arteko ezberdintasunak daude; beltzak baztertu egiten dira, oraindik. Balantza desorekatu batean bizi gara.

#### Zer egin beharko litzateke ezberdintasunaren arazoa konpontzeko eta desorekatuta dagoen balantza bere onera ekartzeko?

Ezberdinak diren guztien artean laguntza gehien behar duenari lagundu behar zaio. Pobrezia handiena dutenei lagundu behar zaie. Horrela, arinago lortuko ziren Nazio Batuen Programak 2000. urtean zehaztutako helburuak arinago lortuko ziren. Herrialde txiroetako merkatuak suspertu beharra ere aurreikusit dugu.

#### Nola kudeatu beharko litzateke merkatu horien garapena?

Txirotasunean murgilduta dauden herrialdeentzako diru laguntzak emendatuz, merkatu baldintzak egokituz (arantzelak, jaitsita, adibidez), eta beste zenbait alor indartuz. Herrialdeari irabaziak lortzen utzi behar zaio; aberatsenen dirua egoki gestionatuz eta pobrezian dagoen herrialdeari bizi propioa emanez.

#### Askok uste dute inoiz ezin izango dela mundu orekatu bat lortu. Zer deritzozu?

Nik gizarteko talde horri esango nioke agian ez garela sekula helduko mundu baketsu eta perfektu bat lortzera, baina hobetzerik badago. Azken urteetan munduko zenbait herrialdetan garapen nabarmena eman da. Aurkeztu berri dugun txostenak lorpen ugari biltzen ditu; hala nola, pobrezia gutxitzea, hezkuntza maila igotzea... Orokorrean aurrerapausoak egon dira, baina gure ustez mantsoegi goaz aurrera; urrats gehiago egin behar ditugu hurrengo bost urteetan. Horretarako beharrezkoa da gizartearen laguntza, guztion artean egin behar da.

#### Arlo honetan lanean zabilzatenontzat zaila izaten da epe luzean aurrerapausoak egongo direla hitzematea?

Benetan lan gogorra da. Izan ere, egunetik egunera gauzak asko aldatzen dira eta horrek konplikatu egiten du gure lana. 2000. urtean azpimarratu genituen helburuek 2015. urtean beteta egon beharko lukete, baina hori oso zaila da. Txostenak erakusten duen moduan atzerapenak nonahi ematen dira.

#### Hasiera baten hitzartutako helburuak betetzen ari al da Nazio Batuen Erakundeak Garapenerako Egitasmoa?

Arazo bakoitzak denbora behar du. Helburu batzuk betetzea lortu badugu ere, aurrerantzean bizi egin beharko ditugu gure prozesuak. Oraindik

## «Pobreziak gatazkak areagotu eta ezberdintasunak azaleratzen ditu»

badira leku asko non garapenak ez duen inolako eraginik izan, Saharaz Hegoalderako Afrikan, esaterako. Leku horietan egoera gordina da oraindik.

### **Komunikabideetan azaltzen diren arazoetaz gain, gizartea konturatzen al da hainbat herrialdeetako egoera larriaz?**

Komunikabideek laguntzen dute arazoak plazaratzeko orduan, baina hurrengo egunean gutxi batzuk egongo dira arazoaz pentsatzen. Irudi zirraragarriak, kaosak eragiten dituen oihuak askoren bihotza hunkitzea lortzen dute. Laguntzak bidaltzen dira, baina egunak aurrera doazen heinean laguntzak gutxitu egiten dira. Askok eta askok ahaztu egiten dute, edo behin lagunduta nahikoa dela uste dute. Ezin da laguntzekin fidatu, hilabete batean asko dira eta hurrengoak hutsaren hurrengoak. Jarraitortasuna bultzatu behar da herrialde txiroen laguntzetan.

### **Hil honen hasieran, 'Katrina' urakanak New Orleans txikitu eta hankaz gora utzi du. Nolako jarrerak ikusi dituzu?**

Ameriketako Estatu Batuen jarrera kritikatzan hasiko ez

banatzen ere, ezbehar horiek gure lana bikoiztea eragiten dute. Kolpe handiak izaten dira. Orain dela pare bat urte informazio kanpaina bat egin genuen, hondamendien aurrean nola prestatu behar den azaltzeko. Pobrezia dagoen lurraldeetan ezinezkoa izaten da natur hondamendien aurrean inolako babesik hartzea. Pobreziak gauza asko oztopatzen ditu.

### **Gatazkak pobrezia indartzen duela eta pobrezia gatazka bermatzen duela esaten da txostenean. Nola eten, ordea, gorpil zoroa?**

Pobrezian dauden herrialdeetan kaosa da nabarmen eta egoera gogorrek gizabanakoak mugetara eramaten dituzte. Herrialde pobreetan gatazka ugari izaten dira ondorioz. Gatazka bakoitzak txiroa zena txiroago uztendu, eta aberatsa aberatsago; ezberdintasunak areagotu egiten dira. Garatze prozesuan azken dauden hamar herrialdeetatik bederatzik gatazkak dituzte. Borroka horien ondorioak bost urte geroago ere pairatzen dira.

### **G8koek azken bilera egin ondoren, orain arte izan duten jarrera berbera erakutsiko dutela uste duzu?**

Ezaxolakeria handia erakutsi badute ere, espero dugu aurrerantzean egoera aldatzea. Boteretsuenak diren heinean, pobreenei lagundu behar diete. Askotan, aldiz, interesak

eta boterea izaten dira jokoan, eta horrek zaildu egiten du errealitatea. Orain arte agindutakoa ez dute bete; hitzartutako diru laguntzak bideratu ez badituzte ere, egoerak hobertu egingo delakoan gaude.

### **Milurtekoaren hasieran finkatutako helburuak gauzatzen jarraituko duzue hemendik aurrera. Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Guk lanean gogor jarraituko dugu, gutxi daukatenak defendatuko ditugu eta gehien dutenei laguntza eman dezaten eskatuko diegu. Gauzak horrela, erraza ematen du irtenbideak, baina zailtasunak egunetik egunera areagotzen joango dira eta gu prest egon behar gara horiei ere aurre egiteko. Gizarteko pertsona orok sinetsi behar du mundu baketsuago batean. Errealitatea ikusi, aztertu eta berriz eraikitzeke grina azaleratu behar da. Guztiok eman behar dugu zerbait, bakoitzak bere zati txiki bat emanaz gero nahikoa izan daitekeelako.

# 5


**UNESCO Etxeak** jarduera bakoitzari buruzko informazio argia eta zorrotza eman nahi dio gizarteari. Gure kontuak Gassó Auditores, SL-k ikuskatzen ditu urtero.

### **Halaber, bazkide edo erakunde laguntzaileen batek gure finantza egoerari buruzko datu gehiago ikusi nahi izango balitu, kontuen ikuskaritzaren txostenak eskuratzeko aukera izango du.**

Bazkideen, entitateen eta administrazioen konfiantzari esker, UNESCO Etxeak milioi bat eurotik gora kudeatu ditu 2005ean.

Datu ekonomikoak


Sarrerren bilakaera 2000-2005






### Sarrera pribatuen eta publikoen jatorria

<b>2005eko sarrerak guztira</b>	<b>1.092.696 €</b>
<b>Ekarpen pribatuak</b>	<b>147.155 €</b>
Bazkideak	6.869 €
Entitate pribatuak	140.286 €
<b>Ekarpen publikoak</b>	<b>945.539 €</b>
Eusko Jaurlaritzaz	766.628 €
Bizkaiko Foru Aldundia	60.000 €
Udalak	101.128 €
Atzerri-arazoetako eta Lankidetzako ministerioa	6.500 €
Beste sarrera batzuk	11.283 €



### Gastua Programaz Programa

<b>2005eko gastuak guztira</b>	<b>1.036.327,52 €</b>
Hezkuntzarako eta gazteriarentzako proiektuak	63.881,63 €
Lankidetzarako proiektuak	142.650,22 €
UNESCO Bekak	250.655,16 €
Giza Eskubideetarako proiektuak	47.124,57 €
Ingurumenerako proiektuak	123.283,83 €
AMARAUNA proiektua	106.924,30 €
Dokumentazio-zentroa	27.176,65 €
KOOPERA	46.195,23 €
Nazioarteko Harremanak	85.383,21 €
Kudeaketa orokorra	143.052,72 €




### 2005eko egoera-balantzea

Aktiboa	2005	2004
B) Ibilgetua	16.672,80 €	18.719,33 €
II. Ibilgetu materialak	16.672,80 €	18.719,33 €
D) Aktibo zirkulatzailea	648.069,71 €	551.976,88 €
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>664.742,51 €</b>	<b>616.617,85 €</b>

Pasiboa	2005	2004
A) Funtz Propioak	71.801,76 €	45.414,83 €
E) Epe motzeko hartzekodunak	592.940,75 €	571.203,02 €
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>664.742,51 €</b>	<b>616.617,85 €</b>

### Auditoriaren Txostena




# Web orria eta argitalpenak

# 6

**2005an zehar,** UNESCO Etxearen presentzia handitu egin da Interneten. Helburu hori lortu izana bi adierazlek bermatzen dute:


Gure web orriaren bidez emandako informazioa nabarmen handitu da. Horren erakusgarri da Google eta Yahoo bilatzaileetan **23.000 orri indexatu** baino gehiago dituela.

Bisiten kopurua % 32 baino gehiago handitu da iaztik hona. **Guztira, 155.538 sarrera egin eta 509.000 orri bisitatu dira.**







[www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org)

Sarrerak 2004-2005



Abian jarri zenetik, web orrialdearen sarrera kopurua bikoiztu da: 2005ean 14.000 bisita irabazi ditu.



## Argitalpenak

UNESCO Etxeak UNESCO Edizioen argitalpenak interesatuen esku jartzen ditu, banatzaile ofiziala den aldetik. Halaber, UNESCO Etxeak badu bere argitalpen-katalogoa, eta argitalpen horietako asko doan eskura daitezke formatu elektronikoa, gure web orriaren bidez.

Hauek izan dira 2005eko argitalpenak:

**ESSOMBA, M.A. 'Sanduk. Hezitzaileak kulturartekotasunean eta immigrazioan hezteko gida'**  
Euskara.  
Interneten eskura daiteke.

**UNDP. 'Giza garapenari buruzko Txostena 2005: laburpena'**  
Euskara.  
Interneten eskura daiteke.

**NBE. 'Milurtekoko Garapen helburuak'**  
Euskara.  
Interneten eskura daiteke.

Zenbait egile. **'Europako Hizkuntzak'**  
Euskara.

Zenbait egile. **'Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena'**  
Euskara.  
(Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratua).

Zenbait egile. **'Words and words. World languages review'**  
Ingelesa.  
(Multilingual Matters-ek argitaratua).

Zenbait egile. **'Urdaibaiko garapen iraunkorri buruzko X. jardunaldiak'**  
Gaztelania-Euskara.

**URRUTXI, M. 'Hezkuntza giza eskubide'**  
Gaztelania-Euskara.  
Interneten eskura daiteke.

**VAZQUEZ, M. 'UNESCO eta biosfera erreserbak'**  
Gaztelania-Euskara.  
Interneten eskura daiteke.



# 7

## Eskerrak

**Etengabe** babesten gaituzten bazkideei

**Ohorezko Bazkideen Aholku**

**Batzordeari** (José Antonio Ardanza, Federico Mayor Zaragoza, Félix Martí, Joaquín Achúcarro, Daniel Innerarity, Txomin Bereziartua y Juanita Carro).

**Amarauako talde teknikoko kideei**, irrotasun, zorrotasun eta gogo handia erakutsi dutelako (Andoni Barreña, Itziar Idiazabal, Estibaliz Amorrotu, Ane Ortega).

**Finantziazioan laguntzen gaituzten erakundeek:**

Eusko Jaurilaritza:  
Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia.  
Kultura Saila.  
Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila.  
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.  
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.  
Bizkaiko Foru Aldundia.

Bilboko Udala.  
Donostiako Udala.  
Basauriko Udala.  
Bermeoko Udala.  
Gernika-Lumoko Udala.  
UNESCOren MaB Programaren espainiar batzordea-Ingurumen ministerioa. Parke Nazionalak.

**Baita honakoei ere:**

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko talde osoari.  
Urdaibai Erreserbaren esparruko UPV/EHUko Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedrako Miren Onaindiari eta Arantxa Ibaeri.  
Xavier Aranari eta Urdaibai Biosfera Erreserbako Patronatuko talde osoari.

UNESCOri Laguntzeko Espainiako Batzordeari.  
Marina Ponti andreari, Nazio Batuen Milurteko Helburuen Kanpainako Koordinatzaileordea.  
Fernando Casado jaunari, Aitzakiarik Gabe 2015 kanpainaren koordinatzailea Espainian.  
María Noel Baeza, PNUDen Egitasmo Nagusietarako arduraduna.  
Marta Ruedas andreari, Garapenerako Nazio Batuen Erakundeko Programako (PNUD) Europako Bulegoko alboko Zuzendaria  
Carlos Jiménez Renjifo jaunari, Espainiako eta Andorrako Mendebaldeko Europarako Nazio Batuen Eskualdeko Informazio

Bulegoaren (RUNIC) arduraduna. Carlos Villán Durán jaunari, Garapenerako eta Giza Eskubideen Nazioarteko Eskubidea Aplikatzeko Espainiako Elkarteko Lehendakaria.

UNESCO 2005 Boluntarioen Programan parte hartu duten bekadunei, egindako lan bikainagatik:  
Zuria Arzúa, María Castro, Eider de Gana, Silvia García, Ana González, Vanessa Gutiérrez, Sergio Hoyos, Maider Iriarte, Maider Koro Maraña, Toñi Moya, Ruth Vicente.  
Eta lan-arlo guztietan lagundu duten pertsona guztiak.

**EL CORREO**



**EGIN ZAITEZ BAZKIDE**  
Urkixo Zumardia, 60 esk.nag. 48011 Bilbo  
Tel.: 94 427 64 32 Faxe: 94 427 25 48  
bazkideak@unescoeh.org  
www.unescoeh.org



### Izen ematea

Informazioa jaso nahi dut  Bazkide izan nahi dut  UNESCO Etxeari dohaintza bat egin nahi diot

Izena:

Abizenak:

N.A.N (letrarekin):

Helbidea:

Herria:

Tel.:

E-posta:

### Bazkideak

Bazkidea UNESCO Etxea:  90 €/urtean  30 €/urtean (ikasleak eta langabeak)

Ordainketa maiztasuna:  Urtean behin  Sei hilabetean behin

Kontu korrontearen titularrak:

Banku edo kutxaren izena:

Kontu zenbakia: / /

Data:

Sinadura:

### Dohaintzak

UNESCO Etxeari diru kopuru hau eman nahi diot: Euskadiko kutxa: 3035 0019 99 01900 31116:

100 €  50 €  30 €  ...(beste kopuru batzuk)

Bidali postaz, faxez edo e-postaz helbide honetara: Urkixo Zumardia, 60 esk. nag. • 48001 Bilbo

Tel.: 94 427 25 48 • Faxe: 94 427 25 48 • bazkideak@unescoeh.org • www.unescoeh.org

Zure ekarpenak %25eko kenkaria izango du errenta aitortpenean.

**15 urte**  
1991/2006

UNESCO Etxeak 2006an  
XV. urteurrena ospatzen du